



# BAM

BAIONA ANGELU MIARRITZE

**2017ko azaroaren 27tik abenduaren 3rat  
Baiona-Angelu-Miarritze eremuan,  
7 egunez euskaraz bizitzeko  
450 hiztun mobilizatu...**

## **BAIETZ LORTU!**

# **MEMORIA TXOSTENA**

Euskara | Erabilera | Bateratu | Boteretu

**BAM! dinamika**  
bam.euskaraz@gmail.com



## **AHOBIZI & BELARRIPREST**

*“Hau ez da komunikazio kanpaina bat izan,  
ez eta euskararen aldeko besta bat.  
Euskararen erabilera azkartzeko  
dinamika berritzailea baizik.  
Soilik baina ez bakarrik.*

*Hiztunak ahaldunduz, beste alor guziak ere indartzen dira:  
eskaera soziala, transmisioa, irakaskuntza, motibazioa...  
Euskararen biziberritzean, euskalgintzak eta instituzioek  
aktibazio sozial mota hau ezinbestekoa dugu.  
Azken 20 urteetako mobilizazio originalena?”*



## AURKIBIDEA: NUN ZER?!

Aitzin solasa: **BAIETZ LORTU?!** 6. or  
Baiona – Angelu - Miarritze: **PERIMETRO HIGATUA?** 5. or

### 1. ATALA: ZER EGIN DUGU? NOLA EGIN DUGU?

Dinamika: **PAUSOZ PAUSO, BIDEA ELKARREKIN** 8. or  
Formakuntza: **HERRITARREN ARTEAN EGINA** 9. or  
Komunikazioa: **HITZETZ HITZ NEURTUA** 10. or  
Programazioa: **HALABEHARREZ KUDEATUA** 11. or  
Logistika: **HOBETZEKO SISTEMA** 11. or  
Kontularitza: **DIRURIK GABE, AUZOLAN ASKO** 12. or  
Egutegia: **TINKO ETA TRINKO** 13. or

### 2. ATALA: ZER LORTU DUGU? NOLA BIZIA IZAN DA?

Ahobizi & Belarriprest: **NOR DIRA?** 15. or  
Desafioak: **ZERTARA ENGAIATU DIRA?** 16. or  
Euskara: **ZER HARREMAN?** 17. or  
Jauzia: **ZER ALDATU DUTE?** 18. or  
Bizipenak: **NOLA BIZI IZAN DUTE?** 20. or

### 3. ATALA: ZER HOBETU? NOLA SEGITU?

Euskaraldia: **INDARTZEKO MENTURA** 23. or  
2018: **SEGI AITZINA, OZKA BAT GORAGO!** 24. or  
BAMetik Euskaraldira: **ONDOKO URRATSAK** 25. or

Azken hitza: **ABENTURA BOROBILTZEKO** 26. or



# AITZIN SOLASA: BAIETZ LORTU?!

## ANALISIA

### ABIAPUNTUA

Bakoitzak egoera eta momentu desberdin batean kokatuko du BAMen hasiera. Gehienontzat, euskararen aldeko engaiamenduaren jarraipena izan da. Baina BAM ez denez deusetik sortu, ez baitugu guk ezer berri asmatu, Udaltop jardunaldian koka genezake genesiaren parte bat.

Ehunka pertsonen aitzinean Egia, Agurain, eta Lasarte-Orian hiztunak aktibatzeke esperientziak eta ekarpenak aurkeztu zituzten. Han zirenak, bateriak kargaturik sartu ginen Ipar Euskal Herrira, eredu hori gure lurraldean nola edo hala egokitzeko ideiarekin.

### PINDARRA

Ideia lauso hori kafe baten aitzakian bota zen lagun batzuen artean; bakoitzak bere lagunekin eta abar. Ideiak egin du bide. Bazkari goxoak lagun, xedea afinatuz joan da. Herri Urratsetik EHZrat, garagardo katxi bat eskuz esku partekatzen den bezala ibili da egitasmoa ahoz aho.

Izen zerrenda bat osatzen hasi da ere. "To hura deitu beharko litzateke", "nik hari aipatuko diot". Ikastoletako gurasoak, AEKko formatzaileak, Seaskako langileak, militante erreak, Uda Lekuko animatzaileak, Euskal hedabideetako kazetariak, erretretadun ahaldunduak, euskara teknikari eskizofrenikoak... Talde eder, azkar eta anitza osatzeraino.

### EREMUA

Uda hasieran aurkeztuak izan diren datu soziolinguistikoek berretsi dute Baiona – Angelu – Miarritzen euskararen berreskuratzea ez dela irabazia. Errealitatea dorpea da: euskararen ezagutza %14koa da eta erabilera %2koa. Baina eremu horretan 9.000 euskaldun eta 6.800 elebidun hartzaile bizi dira ere, hots hiztun batek egunero 15.000 solaskide potentzial ditu bere inguruan euskaraz aritzeko.

Bestalde BAM hiri-eremuan, Euskalgintza errotua eta antolatua da: ikastolak, gau eskolak, aisialdi zentroak eta kultur elkarteak paisaia instalatuak dira. Baina molde iraunkorrean saretua izatea eskas du eremu horretan (Korrikak bi urtero lortzen duena) eta publikoak gutxi gurutzatzen dira. Baionan Elekatu-elikatu eta Euskara BAlonan desagertu dira. Angelun Kalakaldi aparte, energiak egituren kudeaketara bideratuak dira (bereziki MGKE sortu berria). Miarritzen, 6 urteko ziklo bat bukatu da Mintzalasientzat eta sentrazio gazi-gozoa agertzen hasi da.

2017an Mintzalasai 3 hirietara zabaldu da. Baina tresna horrek inpaktatze funtzioa ongi betetzen badu ere (jende berria euskarara erakarri mezuzabal batekin), euskal hiztunen trinkotzea ez du lortzen. Perimetro horretan beste tresna baten beharra agerikoa da, beste guzien osagarri.

### PUNKI ETA HIPPIE

Dinamika hau zerutik ezer jaustea itxoin gabe muntatu da, "zuhurrek egizu" filosofiari jarraikiz. Erdi-punki, erdi-hippie. Punki: lurralde zail batean, dirurik gabe, denborarik gabe, bide-orririk gabe eta instituzio guzien laguntza ukatuz aitzinatu girelako. Hippie: auzolana eta eredu parte hartzaile, horizontala, parekide, anitza izan ditugulako ardatz.

Taldean ari izan gira, lan orduetatik kanpo. Bilkuretan asko eztabaidatu dugu, kontsentsuak zatiketari gaina hartuz eta ausardiak pragmatismoari. Bilkuren parte bat xufik pasa ditugu. Dinamikaren izena post-iten ariketari esker atzeman dugu. Gai korapilatsuak lantalde txikietan landuz konpondu ditugu... Usaiatz kanpoko zerbait sortu behar genuenez, usaiatz kanpoko antolaketa bat irudikatu dugu.

Hori da BAM dinamikaren kontakizun bat. Baina beste 11 izan daitezke. 11. Euskaraldiak 2018an izanen dituen egun kopurua.



# 1. ATALA ZER EGIN DUGU? NOLA EGIN DUGU?



# DINAMIKA: PAUSOZ PAUSO, BIDEA ELKARREKIN

## ANTOLAKETA:

Bi lan espazio erreferente desberdinu ditugu: gai batzuen aitzin lanketa egiteko "lan komisiok" eta gogoeta era kolektiboan eramateko eta trenkatzeko "talde eragilea".

### Talde eragilea:

- Osaketa: 3 hirietako euskaldun - Adin, jatorri, sentsibiltate anitza.
- Rola: Gai guziak eztabaidatu eta adostu.
- 4 aldiz biltzen.

### Lan komisiokoak:


- Osaketa: afinitateen arabera.
- 3 lan komisioko autonomo: Komunikazioa - Prestaketa - Ebaluaketa.
- Rola: Gaiak gogoetatu eta landu.
- Beharren arabera biltzen.

## HOBETZEKO PISTAK:

**Programazio & Logistika komisiokoak gehitu:** Txapen kudeaketa eta egitarauaren apailatzeaz arduratzeko.

**Komisioko erreferenteak izendatu:** Koordinatzaileekin eta talde eragilearekin lotura egiteko.

**Koordinatzaileen funtzioa definitu:** 2 pertsona izendatu lanaren aitzinamendua segitzeko.



## BILKURAK:

Denbora eta energiak mugatuak izanki, talde eragilea gehienez 4 aldiz bilduko zela adostua izan zen. Aldiz, instantzia sortzaile eta erabakitzailea zenez, bilkuren forma ongi landu da.

- **Animazio teknika parte hartzaileak:** Elkar ezagutza ariketak, Post-iten erabilera, lantalde txikietan gogoetatzea, denek hitza hartzea zaintzea, eztabaiden moderatzea, mahairik gabeko gelak konfiguratzea, partekatzeak jas eta bixkotzak ekartzea, egoitza neutroak lehenestea (Gaztetxe, elkarleen etxe), konplizitate eraikitzeak bazkari bilkurak antolatzea...
- **Gai ordena xeheki definitua:** Parte hartzaile bakoitza proiektatzeko gisan, bilkurari helburu bat emateko eta denbora kudeatzeko (iraup. max: 2 ordu).
- **Bildumarik ez:** Bilkuretan hartzen zirenez erabakiak, bertan egotea garrantzitsua izan da. Ahalorde bidezko engaiamendurik ez sustatzeko, ez da bildumarik egin. Bilkura bat huts egin zutenei, bilana telefono bidez egitea proposatzen zitzaie (motibazioa neurtzeko).

## BARNE KOMUNIKAZIOA:

Jendearekin zuzeneko harremana lehenetsi da: e-mezu inpersonalen ordean telefono deiak pasatuz edo kafe baten inguruan solastatuz. Egitasmo mota berria izanki, garrantzitsua izan da interpretazioaren itzalak gutxitzea.

Taldea osatu ondoren, Whatsapp taldeak eta E-mezu kateak plantan eman dira.

## HOBETZEKO PISTAK:

- **Tresnen erabilera arautu:** Whatsapp eta mezu elektronikoen erabilera erretzeko neurriak adostu (adb.: eskuratze agiria helarazi, talde bakoitzaren gaia errespetatu...).




# FORMAKUNTZA: HERRITARREN ARTEAN EGINA

## KOPURUAK:

300 pertsonak segitu dute prestakuntza (parte hartzaileen 1/3a).

27 prestakuntza saio eskaini dira:

- 20 Ahobizientzat – 7 Belarriprestentzat.
- 10 saio ireki – 17 saio itxi.



Saio irekiak: Miarrizteko elkartearen etxea (14) – Baionako elkartearen etxea (15) – Angeluko Manex Goyhenetxe kultur etxea (18) – Baionako Gau eskola (20) – Miarrizteko Gau eskola (21) – Baionako Gau eskola (22).

Saio itxiak: Etxepare (6 & 7) – Elkar & Euskal Moneta (15) – Villa Fal (23) – Oihana ikastola – Kimua ikastola – Miarrizteko Gau eskola – Baionako Gau eskola – Angeluko ikasleak.

## METODOLOGIA:

6 pertsonen osatu komisioko batek ditu prestakuntza saioak diseinatu eta antolatu, Gemma Sanginesen TELP tailer eta Euskaltzaleen Topagunearen Zergatik ez? tailerretatik abiaturik.

Ariketa bakoitza fitxa pedagogikoan emana, eta material guzira (Fitxak, Diapoak, Bideoak...) Drive batean bildua eta ordenatua, prestatzaileentzat eskuragarri. Komunikazio batzordearekiko elkarlana funtsezkoa izan da Gomendio Fitxak eraikitzerakoan.

Azaroaren 6an, prestatzaile izan nahi zuten 18 pertsona formatu dira gaien janzteko, eta materiala eskura eman zaie. BAM astea aitzineko 15 egunak baliatu dira prestakuntza saioak emateko: garrantzitsua da denboran hurbil izatea, tailerrak motibagarri izateko eraikiak baitira, eta goizegi eginez, motibazioa eta ausardia higa daitezkeelako. Gehienetan bi pertsonak eraman dituzte saioak.

## EDUKIA:

- **Ahobizi** (iraupena 1:30 oren): Elkar-ezagutza, hizkuntza-harremana; Lehen hitzaren garrantzia; Estres linguistikoa kontzeptua; Elkarriketa egoera desberdinak; Aserbitibitatea kontzeptua; Gomendioak ahoz idatziz; Fitxa indibiduala; Txapa.
- **Belarriprest** (iraupena 2:00 oren): Elkar-ezagutza, hizkuntza-harremana; Euskararekiko pertzepzioa; Lehen hitzaren garrantzia; Estres linguistikoa kontzeptua; Praktika egingarriak; Gune geografikoak; Gomendioak ahoz idatziz; Fitxa indibiduala; Txapa.

## BALORAZIOA:

• **Parte hartzaileak:** Neurri handi batean baliagarria izan zaiela diote. Lau arrazoi nagusi berriz heldu dira lekukotasun idatzietan:

1. Dinamikan sartzeko, BAMen nondik norakoak ongi ulertzeko...
2. Kolektiboaren sentipena ukateko, jendea ezagutzeko, lotura sortzeko...
3. Norberaren hizkuntza ohiturak ulertzeko, arazoak identifikatzeko...
4. Egoera desberdinei prestatzeko, erreakzio tresnak ukateko...

Agertzen den kritika bakarra ez aski sakona izatea da (TELP tailerrei erreferentzia eginez). Parte hartu ez dutenek denbora eskasa eta agenda arazoak aipatzen dituzte.

• **Formakuntza emaileak:** balorazioa biziki positiboa egn dute, parte hartzaileekin izandako solasak biziki aberasgarriak eta interesgarriak izan direlako. Bi animatzaile izatearen garrantzia azpimarratua izan da.



### HOBETZEKO PISTAK:

- **Gaitasunen araberako binomioak osatu:** Kalitatezko formakuntza eskaintzeko, gaian eroso sentitu behar da eta taldea kudeatzen jakitea garrantzitsua da (ele argia, denboraren kontrola, sintesia gaitasuna). Zurkaitz filosofian, hasiberriak konfirmatu bilakatuko dira.
- **Tailerak zehazki aurkeztu:** Sobera lausoa izan da publiko zabalarentzat. Zergatik formatu? Zer ariketa? Nork animatuko ditu? Iraupen zehatza? "Prestakuntza" hitzak konfusioa sortu du (terminologia egokitu: Hizkuntza tailerra, Ahalduntze tailerra, Informazio bilkura).
- **Formula desberdinak proposatu:** Oren bateko tailer hetsiak elkar ezagutzen duten pertsonentzat (adb: egitura berdinekoak), eguerdi eta biak artean - Sakonagoak urrunago joan nahi dutenentzat - Belarriprestekin mintzatzeko moldeak...
- **Materiala pedagogikoa sortu:** Umorezko bideoak (Bref doinuan), Jingleak, esku-orria.
- **Egutegia zabaldu:** Jendea irailean formatzen hasi, azaroan berriztatze batekin.
- **Txaparena tailerretan landu:** Txapa babesle bezain kritika-amu izan daiteke. Hego Euskal Herrian ez bezala, Iparraldean errepresentazio historiko batzuk iratzarrarazten ditu (Bigarren Mundu Gerlan juduei ezarri izar horia), baita diskriminazio arrazoinamenduak. Hala ere, hiztun frankok azpimarratu du txapa gabe, gutiago ausartuko zela euskara erabiltzen.

## LOGISTIKA: HOBETZEKO SISTEMA

### TXAPAK:

Txapak internet bidez eginarazi dira (Cameloon ataria – 32mm – Mat – 0,30€/txapa). Urririk banatuak ziren baina nahi zutenek diru ekarpen bat egiteko aukera zuten.

Txaparen banaketa kontrolatu da, Ahobizi edo Belarriprestei bakarrik emateko eta sendi dezaten desafio antolatu batean zirela (haien izenak Excell taula luze batean xekatzen zen eta gain-marratzen haien aitzinean). Bi fasetan egin da:

- **6 astez:** formakuntza eta izen ematean eskuragarri (jendearekin harremana ukateko).
- **Azken astean:** hirietako taberna eta denda batzuetan eskuragarri, araudi zorrotz batekin.

### HOBETZEKO PISTAK:

- **Txapa banaketa hobetu.**
- **Txapa non lotu azaldu, beti ikusgarria izateko gisan**

### IZEN EMATEAK:

Paperez edo Google form formularioa betez egiten ahal zen. Baina horrek logistika eta idazkaritza lan luzea eragin du.

### HOBETZEKO PISTAK:

- **Lurraman izen emateak hobeki zaindu.**
- **Gau eskola eta ikastoletan permanentziak orokortu.**
- **Izen emateen kudeaketa logistika batzordearen esku utzi.**

# KOMUNIKAZIOA: HITZETZ HITZ NEURTUA

## DOINUA:

Bilkura, mezu elektronikoa edo esku-orrian, doinu positiboa, inklusiboa eta akuilatzailea eta pedagogikoa (ilustrazioak) erabili da. Komunikazio tribalaren teknikak baliatuak izan dira kolektiboa sortzeko eta desafioa altxatzeko ("asko gira", "dena dugu irabazteko", "txapa soinean, irria ezpainetan, euskara ahoan", "lortuko dugu", "goresmenak", "segi hola"...).

## TRESNAK:

### • **Hiztunen mobilizazioa:**

- Esku-orria: 8 leihoko esku-orria atera dugu 5.000 aletan. Bertsio numerikoa ere hedatua izan da sare sozial, e-mezu eta webguneen bidez.
- Webgunea: Eztabaidatu ondoren, erabaki da webgune propiorik ez sortzea zuzeneko harremana lehenesteko.
- Jingleak: Euskal irratietan, izen emate kanpaina hedatua izan da.

Komunikazioa adarkadura bidez egin da: BAM hiri-eremuko eragileek\* beren sareak mobilizatuz (E-mezuak transferitzea, afitxaketa, esku-orri banaketa, bilkuretan aipamena...)

\* Euskal konfederazioa, lurraldeko 6 ikastolak, Bizi, Eusko Ikaskuntza, Mintzalasai elkarteak, Gau eskolak, Euskal moneta, EKE, Sankara ostatua, Manex Goyhenetche kultur etxea, Biga bai, Arroka...

### • **Ahobizi eta Belarriprestekin lotura:**

- BAM astean, parte hartzaile bakoitzarekin lotura atxikitzeko eta desafioan akuilatzeke moldeak sortu ditugu: 6 SMS – 4 e-mezu – 3 jingle.



## HOBETZEKO PISTAK:

- **Esku-orrien banaketa & Afitxaketa masiboa:** Logistika taldearen esku utzi.

## PRENTSA:

Egitasmoaren berritasuna dela eta, solizitazio asko izan dugu prentsaren partetik. Pertsona multzo ttiki batek mugimendu osoa ez dezan inkarnatu, neurri bereziak adostu dira.

- **Boz eramaile aldakorrak:** 10 pertsonaz osatu taldea osatu dugu, beti ere genero eta sentsibilitate aniztasuna bermatuz. Bakoitzak 2 elkarrizketei erantzun zion batz bestean.
- **Prentsaurrekoa:** Logika berean, agerraldi polifonikoa eta herritarra egin da. Hasierako argazki hori fundatzailea izanen zenez, hitza hartuko zutenei arreta eman zaie.
- **Iritzi artikulua:** herritar multzo baten iritzi artikulua argitaratu da Mediabasken.

## HIZKUNTZAK:

Euskaraz komunikatzea erabaki da, egoera zein den ezaguturik ere koherentziaz jokatzeko. Hala ere, zubiak eraikitzen entseatu gira.

- **Esku-orria:** Edukiaren %10a bakarrik frantsesetik idatzia zen eta ez zen euskarazkoaren itzulpena. Azalean berean, aipamen bat gehitua izan da inguruko laguntzarekin frantsesera dezaten ("demande de l'aide à un proche pour t'aider à traduire ce dépliant").
- **E-mezuak:** Azaro bukaeran Belarriprestei bidalitako mezu batzuetan frantsesetik laburpenak gehitzen hasi gira, euskarazko irakurketa sustatzen duen aipamena gehituz ("Euskaraz irakurri lehenik; vérifiez en français ensuite"). Ahobizientzat, %100 euskaraz.
- **Prentsaurrekoa:** Agerraldia euskara hutsean egin da eta kide batek bat bateko itzulpena egin die kazetari erdaldunei.



## HOBETZEKO PISTAK:

- **Euskara maila egokitu:** Euskara ikasten dutenentzat maila egokitu, bai ahoz, bai idatziz.



## PROGRAMAZIOA: HALABEHARREZ KUDEATUA

Astean zehar, parte hartzaileak indartzeko eta sartzeko, 15 hitz ordu proposatuak izan dira. Orotara 552 pertsonak hartu dute parte.

- MINTZAPRAKTIKA – Polo ostatua (Miarritze) 15 perts.
- BARATXE BARATXE! – Elkarleen etxea (Baiona) 27 perts.
- BERRI TXARRAK Lagin akustikoa & sinaketa. - Elkar (Baiona) 100 perts.
- MERKATURA! (Quintaou kultur gelako ostatua – Angelu) 10 perts.
- AHOBIZI & BELARRIPRESTEN POTEOA - (Baiona) 30 perts.
- MOKOFINEN MINTZAPEROA – Ikastola (Angelu) 15 perts.
- MINTZAPRAKTIKA SAIOA - Epaiska (Baiona) 30 perts.
- KONTZERTU & TALO – La halle aux bières (Angelu) 60 perts.
- MERKATURAT! (Baiona –Miarritze) 15 perts.
- RPM BIZIKLETA (Isteque Sportsanté – Miarritze) 23 perts.
- EUSKARAKUSKETA - Sainte-Croix auzoko mediateka (Baiona) 50 perts.
- ELEMENIA - Hiri barneko Mediateka (Baiona) 32 perts.
- ERRAN-MERRANA - Elkar (Baiona) 0 perts.
- SUPER ZORTZI - Kalostrape (Baiona) 70 perts.
- BILANA & BESTA - Zizpa Gaztetxea (Baiona) 75 perts.

### HOBETZEKO PISTAK:

- **Deialdi bat zabaldu:** Terrenoko eragileek hitz orduak antola ditzaten.
- **Azken eguna sendotu:** Abenduaren 3ko hitz orduari garrantzia eman.
- **Hitzordu desberdinak proposatu:** Gogoeta, familia artean, hitzun arteko topaketak...

## KONTULARITZA: DIRURIK GABE, AUZOLAN ASKO


BAM gisako dinamika bat diru biziki gutxirekin eramana izan da, lan boluntarioari esker. Baldintza hauek onargariak dira esperimentazio pilotu izan den heinean; berritzeko edo orokortzekotan, egiazko diruztatze plana beharrezkoa da.

GASTUAK		IRABAZIAK	
Txapak 1 & 2	315,00€	Mintzalasai elkartearen ekarpena	340,00€
Txapak 3	25,00€	Ostatuen kutxak	68,95€
Txapak 4	45,00€	Etxepare lizeoko ekarpena	45,00€
Komunikazio euskarrien diseinua	600,00€	Eragile 1en ekarpena	600,00€
Komunikazio euskarrien inpresioa	385,20€	Eragile 2ren ekarpena	385,20€
Bilkuren logistika	50,00€	Lurruma eta tabernen kutxa	18,00€
Bestelako gastuak	200,00€	Mintzalasai elkartearen ekarpena	200,00€
Igandeko kontzertua	80,00€	Igandeko kutxa	82,47€
<b>OROTARA</b>	<b>1.700,20€</b>	<b>OROTARA</b>	<b>1739,62€</b>
	<b>TOTALA</b>	<b>+39,42€</b> (2018rako atxikitzea erabakia)	

## EGUTEGIA: TINKO ETA TRINKO

Epe laburreko ikuspegi batekin lan egin dugu: 5 hilabetez hasita, behin-behineko dinamika bat eratu behar izan da. Itsuan aitzinatu gira baina denbora berean energiak ez dira galdu.

DATAK	AIPAGAIK	TOKIA	KOP.
2017-07-13 <b>Talde eragilea #1</b>	Elkar ezagutza - Helburu – Izen – Elkarte eta instituzio lotura – Xedea.	Zizpa gaztetxea (Baiona)	31
2017-08-28 <b>Talde eragilea #2</b>	Egoera anal. – Espazio identifikazio – Belarriprest figura – Lantaldeak.	Manex Goihenetxe KE (Angelu)	14
2017-09-18 <b>Talde eragilea #3</b>	Neurrien definizioa – Komunikazio euskariak – Frantses hiztunen tokia.	Mizanbu gaztetxea (Miarritze)	15
2017-09-26 <b>Bilkura publikoa</b>	Aurkezpena – Mobilizazioa – Ondoko urratsak.	Elkarteen etxea (Angelu)	72
2017-11-06 <b>Prestatzaileen form.</b>	Edukia & materialaren aurkezpena. Egutegiaren finkatzea.	Gau eskola (Baiona)	18
2017-12-03 <b>Bilana eta besta</b>	Bilana indibiduala & kolektiboa – Ondoko urratsak.	Zizpa gaztetxea (Baiona)	58
2017-12-22 <b>Bazkari bilana</b>	Mahai itzuli – Diru irabaziak – Ondoko urratsak – Txostena.	Kalostrape (Baiona)	12



### HOBETZEKO PISTAK:

- **Egutegia aurreikusi:** Udako etenaldia eta iraileko gainkargari kasu eginez.
- **Hats luzeko egitasmoan ez erori:** Hemengo ohituretan, hats luzeko dinamiketan tentsioa eta inplikazioa mantentzea ez da errex (max. 8 hilabete).



2. ATALA  
**ZER LORTU DUGU?**  
**NOLA BIZIA IZAN DA?**



# AHOBIZI & BELARRIPREST: NOR DIRA?


## PARTE HARTZAILE KOPURUA:

6 astez, 450 hiztun mobilizatzea zen xedea. Hein hori 4. astean gainditu izan zen eta orotara 806 pertsonak izena eman zuten.

Ikastetxe, elkarte, gau eskola eta Lurrama erabakigarriak izan dira bukaerako jautsian.

## PERFILAK ETA GAITASUNAK:

Lehen asteetan, Ahobiziek bakarrik zuten izena ematen. Bukaeran, 1/3 Belarriprest eta 2/3 Ahobizi lortu dira. Korrelazio perfektua bada perfila eta gaitasunaren artean.




## ADINAK:

Belaunaldi arteko dinamika izan bada ere, gazteen nagusitasuna ohargarria da: parte hartzaileen %42ak 35 urte baino gutxiago zuen.


## LURRALDEA:

Baionan lan edota bizi diren pertsonak dute gehienbat parte hartu (%59). Hala ere, Miarritze (%21) eta Angeluarren (%15) mobilizazioa ohargarria da.


### PERFILAK




### HIZKUNTZA GAITASUNA



### PARTE HARTZAILEEN ADINAK



### HIRIA (bizi edota lan)







# DESAFIOAK: ZERTARA ENGAIATU DIRA?

## IZEN EMATEA:

Izen ematea bera ahalduntze prozesuan funtsezko etapa da: galdetegia osatzean, hiztuna bere ohiturei begira ezartzen da eta parte hartzailea proiektio ariketa batean kokatzen. Izen ematea pertsonala eta indibiduala izan da (gaizki betetako 50 formulario baztertu dira).

## DESAFIOEN HAUTUA:

14 engaiamenduetatik 12 hautatu behar ziren. Prestaketan parte hartzea izanda gutxien hautatua izan den desafiaoa; besteen kasuan, emaitzak ez dira adierazgarriak parte hartzaile askok Facebook edo Twitter kondurik ez zutelako edo erantzungailua jadanik euskaraz.



### ANALISIA

#### “ALTXORRA PARTEKATZEKO” NAHIA

Parte hartzaileek izenak ematean utzi lekukotasunen artean, euskara ikasi dutenen kartsutasuna azpimarra daiteke. Ezin nabarmendu gabe utzi, baita, eskuzabaltasuna senti dela, euskara besteari eskaintzea intentzio nagusietako bat dela: “AEKko umea izanez, nahi dut ene altxorra partekatu”. Edo beste hau bezala: “Egunero euskaraz mintzo naiz eta proiektu horrek, bertze jendeak laguntzeko eta partekatzeko interesatu nau”.

Hizkuntzarekin beste zerbaite ere jokoan dela berresten dute bat baino gehiagok: “Euskaldun izaiteak nortasun bat emaiten digu, eta euskal kulturaren erroetaraino parte hartzeko parada eman”.

Baita bioaniztasuna ere: “Esterilizatzean” gure mundua, ezabatzean gure kulturak, eskuin muturra igotzen da, berriz eta berriz, errorik gabe eta gerorik gabe, gizakiak besteen bizkar ezartzen du... (euskaraz azaltzeko zaila da :p). Adibidez, Frantzia, usu hizkuntza galdu den eskualdeetan biztanleek eskuin muturraren alde bozkutzen dute. Nire ustez, euskararik gabe, ez da Euskal Herririk, euskal bizimoldea desagertzen da, pentsamoldea desagertzen da... Herria hiltzen da. Desberdintasunik gabe, bioaniztasunik gabe, mundu bat zaporerik gabe da, eta azkenean hiltzen den mundua da, bere aberastasuna desagertzen da”.

Orohar denek euskaraz mintzatzeko aukerak biderkatzeko esperantza dute egitasmo honekin: “BAB eskualdean baita ere nere ingurumeneko okasione gutti baitditut euskaraz mintzatzeko proiektuan parte hartu nahi dut ; euskara eguneroko bizian gehiago baliatzeko”.

Interesgarria da ikustea aldaketa norbanakoaren esku dela argi dutela: “Ados zure egitasmoarekin: euskara euskaldunek behar dugu biziari”. Zehaztekoa da, bide batez, konplexua muineraino sartua dutela, euskara mintzatzeko inposizio bat balitz bezala bizi dutela bat baino gehiagok: “Lehen hitza euskaraz egitea ez zait beti errega (“probokaziotzat hartuko du?”) baina kontziente naiz urrats hau baitezpadakoa dela hizkuntza usaien aldatzeko eta euskara gure bizietan eta karraketan presenteago izateko”.

Bide batez, euskaldunen arteko sarea sendotzeko aukera eskaintzen duela proiektuak pentsatzen dute zenbaitzuk: “Euskaldunek ez dute aski elkar ezagutzen. Uste dut proiektu honek euskaldun zahar eta berrien arteko harremanak erretzeko dituela”. Eta Etxeparerena hirira egokituz, euskara jalgi hadi karrakara, hori ere behin eta berriz errepikatzen duten lema da: “Euskal Herrian euskaraz bizi nahi nuke, eta hori lortzen beste jendeerakatsi! Hizkuntza ez da bakarrik kurtsoetan ikasten ahal, karrakan ere bai. Gure karrak euskalduntzeko prest!”

## JAUZIA: ZER ALDATU DUTE?

Astearen bukaeran, galdetegi bat bidalia izan da parte hartzaile guziei. 170 pertsonak bete dute eta Ahobizi eta Belarripresten artean ordezkatzeko perfektua lortu da. Sorpresa handirik ez bada ere, uste batzuk konfirmatuak izan dira (ikus ondoko orrialdeko grafikoak).

### HIZKUNTZA OHITURAK ETA ERABILERA AUKERAK:

BAMek hizkuntza ohiturak aldatzeko balio izan du. Molde iraunkorrean edo ez, hori geroak erranen du, baina orohar parte hartzaileek diote astean zehar euskara lehen baino gehiago erabili dutela. Jende berriarekin euskaraz harremantzeko eta espazio berriak deskubritzeko aukera izan da ere askorentzat.

### ERABILERA ESPAZIOAK:

Euskara gehiago erabili dute karrikan administrazioan baino eta hurbilekoekin (familia, lagun) besteekin baino (lankide, ezezagun). Hurbilekoekin hizkuntza ohiturak aldatzea errexago izan zaie gehienei (%56) eta besteei ezezagunekin (%44).

### TXAPA:

2/3k dio txapa baliagarria izan zaiela. Azaltzerakoan, 4 arrazoi nagusi agertzen dira:

- 1) **Identifikazioa:** "ikur identifikagarria delako", "kolektibo kide gisa identifaktu navelako"...
- 2) **Betebeharra:** "txapak behartu nau", "motibazioa atxikiarazten lagundu", "desafioa oroitazten du eta frantsesera lerratzean berriz lotarazten".
- 3) **Errazbidea:** "Harremantzea errexteko", "Belarriprestekin egokitzeko", "indarra ematen, alferkeria gainditzeko", "Kuraia, laguntza, konfiantza".
- 4) **Jakinmina:** "Jendearen galderak sortzen", "gaia gizarteratzen laguntzen", "parekoak euskaraz aritzea harriztean, esplikapena errexten".

Beste herenak dio ez dela lagungarri izan jende gutxi ikusi dutelako txaparekin edo arazo materialengatik (ahantzia, galdua, beroki azpian gordea). Gutxi batzuk 2. mundu gerla garaiko "izar horiari" erreferentzia ere egiten diote.

### IKASTETXEETAN:

Espontaneoki ikastetxe desberdinetan lanketak egin dira BAMen astakuruarekin 'euskararen astea' antolatzeko beren ikastetxeetan.


- **Prestaketak:** Villa Fal kolegioan (ikasle – irakasle – langile) eta Etxepare lizeoan (ikasleak).
- **Kanpainak:** Azalpen afitxak eta menuen euskaratzea Villa Fal eta Largenté kolegioetan.

Haien erranetan, euskara ikasten duten ikasleen artean kohesioa azkartu da, langileen arteko elgar ulertzea azkartu da eta haur-guraso artean euskararen gaia aipatu da.


"110 bat ikasle nahianter hurbil eta erakargarri egin zaie BAM dinamika: errexki berenganatu dute, eta karrikan dira batez ere barnetegikoak ibili, Ahobizi, asteazken arratsaldean. Euskararen erabilpenaren gaia molde horretan lantzeak ate franko zabal ditzake dinamika errepikatzerakoan, baita ikastetxean berean integratzeko molde progresiboagoan (bigarrenetik terminalera aberastuz, ikasle guziak hunkituz)."




### Betetatako desafio heina




### Euskararen erabilera




### Euskararen erabilera nun?




### Euskararen erabilera norekin?




### Ondoko puntuak ebaluatu




### BAM! astean, euskara praktikatzeko zenbat aukera berri ezagutu...



### Norekin errexkiago aldatu dituzu zure hizkuntza ohiturak?



### Txapa baliagarri izan zaizu euskaraz gehiago aritzeko?



# BIZIPENAK: NOLA BIZI IZAN DUTE?

## ANALISIA

### PARTE HARTZAILEEN BIZIPENAK

Parte hartzaileen bizipenak erregulariki bilduak izan dira, eta molde desberdinez: SMS bidez, abenduaren 3ko bilanean, galdetegiaren bidez... Orokorrean, ideia berdinak errepikatutak dira, koherentzia baten seinale.

- 1) **Egitasmoa anplifikatu:** Sobera, laburra eta lurraldean mugatua atzeman dute.
- 2) **Antolaketa hobetu:** Prestakuntzari garrantzia gehiago ematea, programazioa zabaltzea eta publiko zabalarari buruzko komunikazio plantan ematea hobesten da. Jendarteak bere osotasunean dinamikaren berri izan behar duela diote, hiztunen bizipenak errenteko. Batzuek diote ere BAM, Ahobizi, Belarriprest kontzeptuak ez direla aski sozializatu (konfusioa ere Ahobizi eta Bizi! mugimenduaren artean). Saltegiak identifikatzearen ideia ere behin baino gehiagotan azpimarratua da.
- 3) **Bakoitzaren tokia definitu:** Ahobizi eta Belarriprest perfilen ondoan 3. perfila sortzea aipatzen da, batzuek ez baitute beren tokia atzeman. Era berean, Belarriprest gehienek euskara maila gora leporatu dute bai idatzizko komunikazioan, bai ahozko interakzioetan (Ahobizien egokitze falta ere deitoratua izan da).

### BIZIPEN EZKORRAK:

- Euska hutsean mintzatzeko beldurra edo aspaldiko harremanak aldatzea zaila izan da.
- Zerbait artifiziala zenaren sentsazioa. Tarte bat espero zena eta bizi izan denaren artean.
- Euskaraz hasita aitzinekoa blokatua / mutu gelditzea. Komunikazioaren helburua moztua gelditu da halakoetan. Inutilitatearen sentsazioa. Frustrazioa.
- Parte hartzearen aldetik, ez da lortu Belarriprestengana iristen.
- Ikastolan edo okindegian, ez da baitezpada senditu euskararen presentziaren emendioa.
- Anti euskaldun direnen eremuetan pausoa ematea zailagoa da.
- Txaparekin jende guti ikusi da eta txapa behar luketen anitzek ez zeramaten.
- Kritika negatiboa 'juduen izan hoririari' erreferentzia eginez.
- Jendeak ez aski kontziente prestakuntzaren garrantziaz; zer zen ez aski ongi azaldua.

### BIZIPEN BAIKORRAK:

- Bi-hiru egunetan leku berera itzullita, denborarekin jendearen jarrera aldatu du.
- Jende euskaldunarekin osoki euskaraz aritu dira gehienak, eta euskaraz nehoiz baino gehiago aritu izanaren sentsazioa izan dute anitzek.
- Harreman hurbilekoetan, mintza praktika egiteko aukera izan da.
- Izena eman duten Belarriprest batzuk biziki pozik agertu dira eta Ahobizien joan dira babes bila. Batzuekin elkarrizketa elebiduna eginez, besteekin euskara hutsean.
- Txapa agertzeak kuriositatea sortu, eta batzuen galderak eragin ditu. Ekimena bera, inguruan euskararen egoera aipatu eta bakoitzak egin dezakeenaz mintzatzeko eta kontzientzia hartzeko aukera izan da anitzentzat: egunerokoan frantsesez ari diren euskaldunekin erabilpenaren erronka mahaigaineratu dute anitzek, eta frantsesekin, euskarak bizi duen egoera larria.
- Sorpresa batzuk ere izan dituzte batzuk, izan okindegian, ala Pole Emploi: txapa ikusi eta euskaraz hasi zaie parekoa.
- BAM ekimena euskararen gune berriak ezagutzeko parada izan da batzuentzat. Orokorrean, bakoitzak bere euskararen eremua zabaltu du. Familia batzuetara, euskara itzuli da, eta senideen arteko elkarrizketak euskaraz egin dituzte aste osoan.



- Antolaturiko ekimenak, anitz izan dira eta hori baikorra da. Gainera, bertaratzeko indarra egin du jendeak, momentu onak izan dira.
- Gune batzuetan sekulako barne-lanketa egin dute. Adibidez, Largenté, Villapia eskoletan.
- Kolektiboaren indarra sentitu da (adb: Quintau merkatuan).
- Kanpainaren berri ukan da, komunikazioa ona.
- Frantses hiztun lagunen partetik jarrera baikorra, interesa hizkuntzarekiko.
- Belarriprest anitzen partetik aldaketa argia sentitu da.

## **BIZIPEN NEUTROAK – BALORAZIO OROKORRAK**

- Batzuen ustez epea motzegia izan da eta orokorrean informazio falta jendearentzat. Prestakuntza hobeki bideratu beharko litzateke, eta astean zehar, hitzordu gehiago antolatu. Komunikazioan lanketa berezia egiteko beharra, euskarri ezberdinetara deklinatuz.
- Euskaldunen artean kolektiboki elkartzeak konfiantza eman dio jendeari: kolektiboak pertsonala bultzatu du eta alderantziz.
- Batzuen iritziz txapa atxiki behar da urte osoan. Besteek, txapa kendu eta naturaltasunez egitea nahi dute. Txapak jolasteko aukera ematen duela uste duenik ere bada, eta ekitaldi puntualetan txaparen erabilera bultzatu beharko litzatekeela. Anitzek, txapa euskararen atxikimenduarekin lotu dute.
- Gehiagotan eta eremu zabalagoan egitearen beharra azaleratu da. Batzuk, urte guzian eta Euskal Herri guzian egitea nahi lukete.
- Norberaren euskararen eremua zabaltzeko beharra, eremu euskaldunen identifikazioa indartzeko beharra.
- BAB mailan zerbaite iraunkorragoa asmatzeko beharra ere aipatu da. Batzuen iritziz, kanpaina bereziak egin litezke, eremu konkretu batzuetan euskararen erabilpena bultzatzeko (posta, herriko etxeak...)
- Esfera informaletik formalera pasatzeko pausoa landu eta laguntzeko beharra aipatu da.
- Datorren edizioetan, egutegia aitzinagotik argitu beharko dela erran da.

## **ANTOLATZAILEAK:**

Abenduaren 22an, antolatzaileen oharrak bildu dira: parte hartzaile gisa izandako bizipenak eta sortzaile gisa sentitutakoa. Abentura eder batean parte hartu izanaren sentazio positiboa orokortua da; denek identifikatu dituzte hobetzeko elementuak.

1) Baikor eta pozik dira, iritzi desberdineko jendea bildu baita espazio partekatua batean eta "jende berria ezagutzeko aukera" izan baitute. Giroa ere eskertu da, "elgarren arteko zaintza", "oreka puntua beti xekatzea". Lorpenaren gako gisa ere identifikatua da antolaketa hau ("piramidala izan balitz, ez zuen hartuko").

Hiztun gisa "barne terapia" izan dela diote batzuek, besteek erabilera "eremu berriak deskubritu" dituztela.

Denentzat berria den egitasmoa izan dela diote, sortzailea eta "esperimentatuz aitzinatu" dena. Formakuntza emaile gisa, batzuek esperientzia berria eta azkarra ere bizi izan dute.

Hori guziagatik, herri dinamika batean ilusioz parte hartzeak on egiten duela partekatua da.

2) Zailtasunak izan dira hala ere, denboraren kontra aritzea, "tarrapataka" eta "kronogramarik gabe". Batzuetan perspektiba ere tapatua zen, "itsuan" aitzinatzeko sentazioarekin. Noraino goaz? Nori zuzendua da BAM? Denek ba ote dute haien tokia? Bakoitzaren dedikazio handia eta koordinazio lanaren premia ere azpimarratu dira.



### 3. ATALA ZER HOBETU? NOLA SEGITU?



## ANALISIA

Antolatzaile, parte hartzaile, behatzaile... denek bat egiten dute errateko BAMEk segida beharrezkoa duela. Parte hartzaileen %93a 2018an gisa bereko dinamika batean parte hartzeko prest da. %77ak dio prest dela lehen hitzak euskaraz segitzeko eta %65a dinamikaren antolaketan laguntzeko prest.

Orokorrean, BAMEk harrera ona izan du eta balorazioak positiboak dira. Irabazitako konfiantza eta sinpatia kapitala, dinamika zabaltzerakoan ongi etorriak dira.

### FRUSTRAZIO SANOAK

Baina BAM dinamika ez da perfektua izan; ez du sakoneko iraultza linguistiko bat abiarazi. Mugak izan dira, frustrazioak batzuetan, porrotak ere bai. Baina identifikatuak diren momentutik, ondoko urratsak diseinatzea ahalbidetzen dute.

Orokorrean, frustrazio sanoak izan dira gehienbat: ez aski luze, ez aski zabaldua lurralde mailan, ez aski masiboki komunikatua, ez aski antzipatua... BAMEk lortu ez duena, Euskaraldiak ekarriko du. 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3rat, BAM Euskaraldiaren baitan kokatuko delako, duda eta zalantzarik gabe.


### LANKIDETZA BERRIA ASMATZEKO

Ipar Euskal Herri mailan ere herritarrak, euskalgintza soziala eta instituzioak elkarrekin lanean eman beharko dira horretarako, eskala hortan bata ezingo baitu besteak gabe ezer lortu. Interdependentzia hori aitortzea, kultura desberdintasunetik at elkarrekin aitzinatzeko nahia aldarrikatzea eta bakoitzari funtzio bat onartzea izan daiteke lehen urratsa.

Hizkuntza politikaren berregituratze fase horretan, Euskaraldia lankidetzaren forma berri baten asmatzeko mentura ederra izan daiteke gurean, asko baitugu ikasteko bata bestearengandik. Elkarrekin lan eginez, ez elkarren ondoan. Berrikuntzari eta esperimendazioari ateak ausarki zabaldu beharko zaizkie, inoiz hartu ez diren bideak baitira hauek. Hizkuntza ohiturak aldatzeko, gure egituretako usaiak ere aldatu beharko ditugu.

Badugu lan. Baina pixkor eta baikor izateko arrazoiak ez ditugu eskas. Dena dugu irabazteko!

Nahi zenuke berriz parte hartu gisa bereko desafio batean 2018an?



## 2018: SEGI AITZINA, OZKA BAT GORAGO

Arloz arlo hobekuntzak izanen dira 2018an (komunikazio, prestaketa, logistika...). Pistak identifikatuak dira eta txostenean jadanik azpimarratuak izan dira. Hobekuntza horien ondoan, berritasunak ere izan beharko dira.

Euskaraldiak zentzua eman beharko dio komunitate oso bati: euskaldunak diren 51.000 hiztunak eta elebidun hartzaileak diren 23.000ak, euskara ikasten duten 1.500 helduak, elebitasunaren hautua egin duten 12.000 familiak...

### FUNTZIO ERALDATZAILEAK AZKARTU, BAM EREMUAN ERAGITEKO:

Epe luzeko aldaketa sortuko duen dinamika.

#### **1) ESPAZIO BEREZIAK DISEINATU PUBLIKO BEREZIENTZAT.**

Ahobizi edo Belarriprest izateko baldintzak ez dituzten betetzen, baina kanpotik bat egiteko gogoia dute. Zein toki? Zein figura? Zein rol? Zein dispositibo? 20h formakuntza?

- Erdaldun euskaltzaleak.
- Euskara ikasten dute hasiera mailako helduak.
- Haurrak.

#### **2) HIZTUNAK ORAINDIK GEHIAGO SARETU.**

Tresna eta momentu berriak asmatu beharko dira, Ahobizi eta Belarriprestak harremantzeko. Euskara praktikatzeko aukera berriak atzematea eta euskara ikasten ari direnekin elkarriketa egokitzea izan beharko dira gako berriak (doinua, hitz jarioa, hiztegia...).

#### **3) ESKAERA SOZIALA AGERIAN EMAN.**

Euskaraldia izan daiteke, gure eremuan, sektore sozio-ekonomiko, zein administratibo-politikoan euskararen galdera soziala ozen pausatzeko aukera. Ikusezina den hiztun komunitate hori entzunaraztea izanen da erronka.

- Txekeroa eta banku txartela euskaraz galdetzeko kanpaina.
- Administrazioari eskaera bereziak egiteko kanpaina.
- Komertzioetan euskara sarrarazi.

#### **4) DAGOENA INDARTU, DESKUBRITU, ERABILI.**

Gaur egun, euskara praktikatzeko espazioak eta aukerak badira. Baina ezagutuak eta erabiliak izatea dute eskas.

- Eusko eta Bai euskarari sareak erabili eta euskaraz galdetu.
- Mediatekan harpidetza hartu eta liburuak hartu.
- Euskarazko zerbitzu publikoa txalotu.

#### **5) AUKERA BERRIAK DESKUBRITU:**

Auzolanean, ahoz aho (paperezko gida baino hobea), euskara praktikatzeko sekretuak partekatuko dira.

- Geolokalizazio kolektiboa.
- Agenda aplikazioa, berri papera.
- Euskarazko aktibitateen logoa.

#### **6) JOKOA LUZATU:**

- "Zatoz txapa soinean, euskara ahoan" logoa sortu, BAM eremuko bestentzat (ikastolako bestak, Sagarno eguna, Eusko eguna, Mintzalasai...).
- Gau eskoletan, desafioak mugimenduan kokatu eta joko bihurtu: saltegi horretara euskaraz joan. Eta bizipena ikasgelan kondatu.



# BAMetik EUSKARALDIRA: ONDOKO URRATSAK

BAM! 2 urteko esperientzia duen desafio bat lurralde berri batean esperimentatzeko saiakera xumea izan da. Ez gehiago, ez eta gutxiago. 2018an, BAM Euskaraldiaren baitan kokatuko da eta Euskal Herri osoan muntatuko den dinamikaren barnean kokatuko du bere burua.

Bitartean, Ipar Euskal Herrian eratu beharko den dinamikari begira, BAMEk 3 ekarpen nagusi egitea deliberratu du (2017/12/22ko bilkura):

- 1) Bere esperientziaren berri eman, ikasitakoa nahi duten guzietan partekatuz.
- 2) Euskaraldia eratzeko gogoeta edota lanetan lagundu.
- 3) Prestakuntza – Formakuntza atala sakondu eta mutualizatu.

## BAM ESPERIENTZIAREN BERRI EMAN:

AURKEZPEN LANETAN ARITZEKO:

Bea • Eneko • Gilen • Jenofa • Nora • Xan

## EUSKARALDIAREN ERATZE LANETAN PARTE HARTU:

ZEREGINEN BANAKETA:

- Zeregin eksklusiboak.
- Zeregin partekatuak.

LAN BANAKETA PRINTZIPIOA:

- Kolektiboki egituratzailea dena. Bakarrik taldea ahultzen ahal duena.
- Bakoitza hobekien egiten duenean berezitu (zilegitasuna eta gaitasuna).
- Batzuk baliabideak eskaini, besteek mobilizazio gaitasuna.

ZEREGINAK:

- Proiektuaren diseinatzea, bereganatzea, deklinatzea – Komisioak & Koordinazioa.
- Jendearen mobilizazioa.
- Komunikazioa – Sozializazioa.
- Formakuntza – Prestakuntza – Ahalduntzea.
- Logistika: (Txapak – Izen emateak – Kom banaketa).
- Ingurunea prestatzea (irritzi publikoa – saltegiak – administrazioak...).
- Programazioa.
- Ebaluaketa.

## PRESTAKETA SAILA SAKONDU:

FORMAKUNTZA SAILA SAKONTZEKO:

Eneko • Nahiara • Nora • Viviane • Xan



### ANALISIA

Hogei ginen hastapenean eta, usteak gainditurik, mila inguru gara heltzean.

Uztaileko taldearen eratze bilkuran hogei bat ginen. Geroztik denbora iragan da, eragileak finkatu eta partaideak juntatu dira astez aste. Gaur BAM ekimenaren ondar egunetara helduak gara eta segipena bihar nola eman dugu gogoeta gai jadanik. Dagoeneko azpimarra daitezke hainbat lorpen, antolatzaile nahiz parte hartzaile gisa, betiere denak alde bikoitzekoak: lorpen kolektiboak eta pertsonalak aldi berean.

Ahobizi nahiz Belarriprest gisa, BAM astean zehar ukan ditugu bulta zailak: nekezien gainditzea, erdararen zurrunbilotik ateratzen saiatzea, muturrak jasatea, gutxiegi ginela pentsatzea noizbehinka, frustrazioa sortu digu ere eragin genezakeen eremua maila pertsonalekoa baitzen, esparru zabalagoak aments (administrazioa, lan mundua,...). Nabarmenak dira alde pozgarriak: euskaldun batzuk ezagutzea, saretzea, partaideen animoa sentitzea, nahikeria eta indar olde gaitza antzematea, ororen buru helburua betetzea euskaraz gehiago egin baita.

Antzeko bilana da talde eragilekoon aldetik. Gainditu ditugu zalantzak, denboraren kontrako lasterketa, gora behera logistikoak.

Sustut, parada gaitza ukan dugu elkar ezagutzeko eta elkarrekin egiteko: bitxia dirudi kasik denek elkar ezagutzen baikenuen, euskaltzale ezagunak izanagatik, alta ez genuen sekulan egitasmorik garatu elkarrekin orain arte. Berez, hori lorpen handia da, euskaltzaleen arteko kohesioa eragin baitu; kolaborazioak eta egitasmoaren arrakastak, ilusioa sortu digu eta elkarrengandik ikasi dugu; bakoitzaren gaitasunek espresatzeko lekua ukan dute, bakoitzak iritzia, jakintza, sarea eta ahalak erabili ahal izan ditu. Egon garenak oro jatorri, esperientzia eta formakuntza ezberdinekoak gara, batzuk besteen osagarri eta sostengu, balore humano horiek dute proiektua hain berezi egin guretzat.

Bestalde, agerian utzi digu herri ekimenaren garrantzia eta inizatiba herritarren pertinentzia, begi bistara ekarri aldaketa lorgarria dela eta ausardiari bide egiten utzi behar zaiola, herritarrengan fidatuz.

Oroz gainera, funtsezko aldaketarik eragin ote duen eta ikusgarritasuna zen mailakoa izan den objektiboki neurtzea oraindik zaila bazaigu ere, badakigu ekimenak osatu duela funtsezko hutsune bat, hau da euskararen erabileraren sustatzea eta hiltunen aktibazioaren saila; abentura xume honek euskararen balio sozialaren berrindartzea, honen funtzio soziala suspertzea ekarri baitu: BAMEk euskara gauzak egiteko, ikasteko eta partekatzeo tresna gisa berkokatu du.

BAMEk gure mugetatik hara joateko balio izan digu eta mugak non ditugun ikusteko ere. Argi daukagu astebete baino gehiago eta beste ekimenak beharko ditugula, baita zabaldu hurbileko eremutik harago: biharko utziko ditugun egitekoak. BAM abentura zoragarria izan da, sentiarazi eta deskubriarazi digun guziarengatik eta batez ere euskararen geroa gu denen eskuartearen kokatu duelako: hiltuna erdian da, hiltzuntza etorkizuna diseinatzeo tresna da.



## **BAM ! Dinamika**

Baiona – Angelu – Miarritze

[bam.euskaraz@gmail.com](mailto:bam.euskaraz@gmail.com)

806 AHOBIZI & BELARRIPREST

**ZORIONAK, IORTU DUGU!**

ORAINDIK GOITI, SEGI EUSKARAZ  
BETI ETA DENEKIN

**TXOSTENAREN LANKETAN PARTE HARTU DUTE:**

Bea • Ekhi • Elena • Jenofa • Mireia • Nahiara • Nora • Uhaina • Viviane • Xan